

«Niretzat sinonimoak ez dira existitzen»

Zigarroa eta begiak batera piztu ditu eta bere hitzei sua darie.
Nork esan zuen suak ez duela marrazteko balio?

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Zer aurkitu zenuen Arte Ederretako karreran?

Askatasuna. Urtebete lehenago euskal filologia ikasten hasi nintzen Donostiako EUTG-n, eta kartzela iruditu zitzaidan. Jesuita eskola bat, atsotitz eta esamolde eredugarriak paretetan, ezin nuen jasan pertsona batek nolakoa izan behar zuen markatzea. Askatasunaz gain jende oso interesgarria ezagutzeko aukera eta mundu ikuskera bat eman zidaten arte ederekin. Irakasle gehienek bazuten irakasten zutena inguruarekin lotzeko joera. Ez zuten artea gauza isolatu moduan esplikatzen, inguruarekin, gizartearekin eta garaiarekin lotutako adierazpide edo jardun bezala baizik. Gainera, arlo teorikoaz gain alde praktikoa zegoen, marraztu beharra, pintatu beharra, eskulturak egin beharra. Hor ezintasun eta kontraesan asko agertzen ziren, gauza bat baita pentsatzea hau edo hura egingo duzula, eta beste bat ikustea hori egiteko zer zailtasun eta oztopo dauden.

Herritar arruntak ez al du artea egunerokotik oso aparte ikusten?

Bai, eta ez da harritzekoa. Horixe da saldu dena. Allan McCollum artista estatubatuarrek artearen sistema inor sar ez zedin hedatuta zegoela zioen. Jendeari museoetara joateko gonbidapena egiten zaio, artea ikusi eta baloratze eskaintza, baina aldi berean atea ixten zaio. Nola? Artea beste maila batera igoz,

Nortasun agiria

1975eko urtarrilaren 29an sortu zen Azkoitian. Arte Ederretan lizentziatua, medio askotako kolaboratzailea, liburu-portada anitzen egilea, *Lisboa Min*, *Epelde*, *mende baten soina* eta *Van Gogh, bihotzean eguzkia* liburuak idatzi ditu. Egun, Sautrela literatur programan egiten du lan.



arrotz bihurtuz, jende arruntaren eskura ez dagoela iradokiz. Bestalde, guk ikasi genuen garaian, eskolan arteari ez zitzaion batere garrantzirik ematen. Artea selektibitate aurreko urtean ematen zen ikasgaia zen, beste ezer ez. Arte Ederretako fakultatean ere bazegoen beldur hori, artea ez ote zen burbuila bat. Horrexegatik azaltzen ziguten zer aurkituko genuen kalean.

Nola uler daiteke burbuila batean dagoena?

Ez dago artea ulertzerik bere garaitik aparte. Koadro bat ulertzen da bere garaia aztertuta, autorea ezagututa, zer gertatu zen jakinda... Esaterako, kubismoa bere leho-

rrean esplikatur gero zer? Ezer ez. Esplikatu behar dena da kubismoa nondik sortu den, zergatik, zeren eraginez, aurretik zer egon den... Gure mundua irudien hain menpe egonda, irudiaren azterketa sakonagoa botatzen dut faltan. Nire ustez eskolan markesinatako iragarkiak aztertu behar lirarteke, formalki, baina ez formalki bakarrik. Zergatik dauka forma hori, zein da mezua, zergatik eman nahi digute mezu hori... Iru-diak badauka begietatik sartu eta barruan geratzeko indar bat, eta hori publizitatea eta telebista egiten duten guztiek badakite. Hori dena txikitatik aztertuta, artea beste era batera ikusiko genuke, azken finean, arteak

Xabier Gantzarain



bere garaiko gizarteari erantzun baizik ez baitio egiten.

Arteaz zipitzik jakin gabe, zergatik dakit museo batera sartzean, zein obra den miresgarria eta zein eskasa? Zer dago horren atzean?

Batez ere, izenaren edo markaren eraikitzea. Dena den, hori ez dago artean bakarrik. Iñaki Segurolak oso ondo esplikatzen du liburuak idazlearen izenik gabe argitaratuko bagenitu kritikak oso desberdinak izango liratekeela. Ez badakigu liburu hori punta-puntako idazle kontsaktatu bate-na dela nola egiten dugu kritika? Baina badakigu liburua norena den eta aurretik daukagun informazio guztiak baldintzatzen du gure irakurketa onerako zein txarrerako. Artean gauza bera. Gaur egun, inork ez du esango Picasso bat txarra denik. Hala ere, ona eta txarraren kontua, oso terreno tranpatia da. Zer gertatzen da faltsuarekin? Zergatik da faltsua txarra originalaren berdinberdina bada? Faltsua delako. Irizpidea ez da koadroari buruzkoa, lehenagotik datorren beste zerbait da. Bost kritikarik esaten badute erakusketa bat ondo dagoela, sariak ematen badizkiote, nahita nahiez beste predisposizio batekin joaten zara hori ikustera.

Baina nork markatzen ditu irizpide horiek?

Garai batean akademia zegoen eta berak esaten zuen “hau ona da guk markatutako kanonak betetzen dituelako”. XX. mendeko arteak lortu du hori puskatzea, ez egotea kanonen menpe. Ona izan daiteke kanonak betetzen dituen, baina baita hausten dituen ere. Kanon hori aldatzen doa etengabe eta gaur egunean museoek eta erosleek markatzen dute. Sinesgaitza da baina Abramovich bezalako aberaskilo batek markatu dezake artearen irizpidea, bere neskalagunari gustatzen zaizkion lanak erosi eta Moskun jarri nahi dituelako ikusgai. Horri artearen munduan gauzak gurtzeko dagoen joera gehitu behar zaio. Alegia, “hau ona da eta gurtu egin behar duzu, ez bazaizu gustatzen inozoa zarelako da”. Jende askok horren aurrean inpotentzia eta gutxiagotasun konplexua dauka. Horregatik biltzen da artaldera.

Jende arruntak ez al ditu irizpide horiek sozialki kokatzeko erabiltzen?

Kultura beti izan da, eta orain agian gehiago, bereizketa sozial baten erakusgarri. Hor italiarrek *distaco* hitza erabiltzen dute: distantzia, baina ez fisikoa, distantzia ekonomiko sozial

“Nire ustez eskolan markesinatako iragarkiak aztertu behar lirateke, formalki, baina ez formalki bakarrik”

“Sinesgaitza da baina Abramovich bezalako aberaskilo batek markatu dezake artearen irizpidea”

Zurrunbiloa

“Donostiako Zinemaldian, ez dugu zineaz hitz egingo baina zinemaldiaz bai. Durangoko Azokan berdin, liburuez ez dugu hitz egingo baina azokaz bai. Zurrunbilok, garai bakoitzean, aurrez erabakita dagoenari buruz hitz egitea eskatzen du. Hortik ezin da atera”.

eta kulturala baizik. Gaur egun enpresa txiki bateko langile eta nagusiak eduki dezakete BMW bana. Orduan, nagusiak bere nagusitasuna erakutsi nahi badu, segur aski bide kulturala aukeratuko du. Bere gustuak jasoagoak izango dira, kultuagoak, operara joango da, halako antzerki obra ikustera, baina ez da rock kontzertu batera joango. Donostian nabarmena da. Zer kontzertutara joaten da udaleko jendea? Zer inaugurazioetara?

Zer obra ikustera? Zer jende datorrenean? Gero ikuskizunari buruz ez du inork hitz egingo, baina Urtia eta Sandia han zeudela komentatuko da. Bestalde, dirua daukanarentzat, artea inbertsio bat izateaz gain, prestigio sozialaren ate bat da. Historian zehar, erregeek, aristokraziak eta elizak horretarako ere erabili dute, eta orain Abramovichek.

Zergatik dago bai gizartean bai artean dena sailkatzeko beharra?

Dena sailkatzen da, dena mailkatu, eta behin nonbait kokatu zaituztenean oso zaila da hortik irtetea. Sailkatu behar horrek dena jaten du, denok jaten gaitu, eta guk ere nahigabe dena sailkatzera jotzen dugu. Beti da errazagoa sistemari jarraitzea kontra egitea baino. Askotan inkontzienteki ere sar-tzen zaizkigu joera horiek. Dena bora guztian aurreratu beharra, aurrerapenaren ideia, beti hobetu beharra, etengabeko formazioa... Etengabeko formazioa sekulako asmakizuna da. Joan naiz ez dakit zenbat urtetan eskolara eta orain esaten didazue alferrik dela, Interneten nabigatzeko ikastaroa egin behar dudala, jendaurrean hitz egiten ikasteko ikastaroa, txinera ikasteko beste bat... Noiz geratu behar dugu? Gelditu, tragoa hartu, lasai egon... Baina ez, beti dago ingelesa, ingelesa ez bada txinera, eta txinera ez bada errusiera. Beti ikasten egon behar duzu, beti etengabeko formazioan. Gizarte honen oso adierazle ona da. Beti segi eta segi, baina beti sailkapenaren barruan.

Zuk idatzia: “Jendeak ez du ezer jakin nahi, jendeak entretenimendua nahi du”.

Ni naiz lehenengoa ohartzen entretenitu behar dudala. Ez hainbeste jakin, pentsatu, gauzak zalantzan jarri. Horrek nekatu egiten du. Ikusten dut egunean hamar ordu lanean pasata etxera doan jendea, eta bista-koa da ez daukala pentsatu eta gauzak kolo-kan jartzeko gogo, indar eta denborarik. Jende horrek entretenimendua nahi du. Norbaitek zerbait kontatzea, eta bera

entzuten edo ikusten egotea jarrera pasibo-arekin. Hori bai, beti behar dugu zerbait. Entretanimendua gizarte honen beste ikur bat bihurtu dugu. Eroskira joaten zara, eta erosketak egiten zabiltzan bitartean, hari musikal bat daukazu bueltaka oharkabeen. Internet oso tresna ona izango da informazioa bilatzeko, baina baita denbora-pasarako ere. Entretanimenduak denok biltzen gaitu bere baitan.

Ez dakigu aspertzen, ala?

Abiadura kontua ere bada. “Aspertzen da jendia...” kantatzen du Pettik. Aspertzen da ez dakielako aspertzen, ez dakielako zer egin denbora librean daukanean. Turistarena oso kontzeptu adierazgarria da. Turista joaten denean leku batera argazkiak ateratzen ditu, ikusi behar dena ikusi, baina segidan agortzen du leku hori. Leku asko agortzeko eginda daude, ez bertan bizitze-

ko. Bizitzearena ere oso desberdin ulertzen dugu guk eta gure gurasoen belaunaldiak. Denbora, erritmoa, gauzak lasai hartzearena, patxadaz egitearena... Bill Gattsek badauka liburu oso arrakastatsu bat non esplikatzen duen nola egin gauzak azkar. Azkar, baina ez ondo. Ez pentsa ni hortik salbu nagoenik. Ni ere nire garaia-aren semea naiz.

**Guggenheim, Artium, Huarte edo Tabakalera bezalakoak ere gure garaia-aren semeak dira. Erakunde-
deen semeak, alegia.**

Batez ere, fatxada kontua da, itxura. Artea eta kultura turismorako beste amu batzuk bihurtu dira, eta erakundeek zerbait egiten dutela justifikatu behar dutenez... Bilboko Guggenheim eraiki zenean kulturalki inportantea izango zela esan ziguten, baina batez ere, ekonomikoki. Hortik aurrera, Bilbok arte modernoko museo bat baldin bazeukan, Gasteiz ezin zen gutxiago izan eta Artium behar zuen, Iruñeak Huarteko museoa, eta Donostiak Tabakalera. Praktikan Tabakalera ezberdina izan daiteke, baina politikarien asmoetan denak berdina dira, turismoa erakartzeko eta kulturaren inbertitzen dela esateko proiektuak. Hori bai, gero kultura ez zaio inori inporta.





Nik ulertzen dut hori, baina ez dut konpartitzen. Garestia da 20 euroko liburu bat? Garestia da 20 euroko CD bat? Kokaina gramo bat 60 eurotan garestia da? Londresera lau egunerako bidaia 1.000 eurotan garestia da? Zer da garestia? Gure lehentasunen araberrakoa da prezioa. Jende askorentzat, alderantzizkoa ere bada, zenbat eta garestiagoa izan hainbat hobe. Zenbat eta garestiagoa izan orduan eta selektoagoa izango den seinale. Erroste-ko ohitura daukanarentzat, eta benetan liburu hori nahi duenarentzat, liburu bat 20 euro ordaintzea oso merke da. Ikusita liburu batek zenbat irauten duen, zenbat aldiz irakurri dezakezun, nola betetzen duen etxeko apalategia... Preziorrena oso erlatiboa da.

Nabari da liburuak idazteaz gain liburuen azalak egiten dituzula. Zergatik sentitzen zara azalak egiten idazten baino askoz erosoago?

Ez dakit zehazki. Agian, irudiak gauza asko esaten dituelako, eta esateaz gain iradoki. Irudi bat bakoitzak nahi bezala interpreta dezake, hitzak ez hainbeste. Niretzat hitz batek gauza bat esan nahi du beti. Irudi bat, aldiz, irekiagoa da. Gainera, azal bat egiten dudanean ez naiz ni liburu horren erantzulea, eta idaz-

ten dudanean bai. Gogorragoa egiten zait hitzarekin dudari harremana irudiarekin dudana baino. Ikusten badut orain hamar urte egindako azal bat eta ez bazait asko gustatzen tira, baina ikusten badut orain hamar urte idatzi nuen zerbait eta esaten badut "hau dek txarrixe!" amorrua ematen dit. Hitza azkenean txiki-txikitatik jaso dugun mundua azaltzeko tresna da, eta barrurago sentitzen dut.

Zuretzat hitz batek gauza bat esan nahi du beti. Alabaina, egun, hitz askok dena eta ezer ez esateko balio dute.

Nik oso harreman estua dut hitzarekin, eta niretzat sinonimoak ez dira existitzen. Gauza

Euskal Herrian badago hainbeste museo elikatzeko publikorik?

Hori da. Joaten zara museo eta galerietara eta zenbat jende ibiltzen da? Oso jende gutxi. Tira, Gugenheimena beste kontu bat da. Ni joanzalea naiz baina askotan ez dakit zer ikustera joaten naizen, han dauden lanak ala han dabilen jendea. Zein da Gugenheimera doan jendearen profila eta beste museoetara doanarena? Zer publiko dauka arteak? Dena den, gauzak egiteko ez nintzateke publikoaren zain egongo.

Publiko batek kultura kontsumitzea geroz eta garestiagoa dela dio.

Durango

"Zertarako da Durango? Zer ekartzen digu? Industria mantentzeko eta eguberritako opariak erosteko leku bat da? Euskal kulturaren plaza inportante bat? Ez bada lan kontuengatik, ez naiz arrimatu ere egingo".

bati buruz hitz egiteko bi hitz baldin badaude, bi hitzetako bakoitzak esanahi bat duelako da. Nonbait diferentzia bat dago, ez dira gauza bera. Hitz bakoitzak dauka bere ñabardura, xehetasun eta historia. Hitzek mundu bat erakusten dute eta egia da hitzak hiltzen ari direla, esanahiz husten. Hitz batek berdin balio du Azkunaren ahoan eta Otegiarenean? Hitza bera da? Horretaz gain, irudiaren munduak, mundu digitalak, hitzaren debalutzea ekarri du. Hitz bat idazten denean gauza bat da baina esaten denean beste bat. Bere fonetika dauka, bere sonoritatea. Ez da gauza bera "lakarra" edo "goxoa" esatea. Ez dakidana da 14 urteko batentzat hitzek zenbateko garrantzia daukaten.

Lewis Carroll: "Kontua ez da hitzek zer esanahi duten, nork agintzen duen baizik".

Nire esaldi kuttunenetakoa da. Dena argi uzten du. Nik agintzen baldin badut nik erabakitzen dut hitz bakoitzaren esanahia. Hori da pasatzen ari zaiguna. Edozein hitz erabiltzailearen arabera aldatzen da. Nola egiten zaio horri kontra? Esaterako, Lasa eta Zabala ez dira biktimak, ez daude biktima bezala onartuta. Zein diren biktimak?

AZKEN HITZA

Iritzia

"Arte Ederretan gehien baloratu nuena dena kolokan jartzeko joera hori da. Edozeren aurrean 'zergatik?' galdetzea. Horregatik estimatzen dut nire lekutik aterako nauen iritzi bat, nire erosotasuna puskatuko duena, eta gauzak beste era batera ikustera bultzatuko nauena".

Agintzen dutenek erabakitzen dituztenak, besteei ez zaie inolako aukerarik uzten. Hori artera ere aplikatu liteke. Zergatik bihurtu zen Bigarren Mundu Gerraren ostean Estatu Batuetako artea denon ikur? Ez onena zelako, Estatu Batuek agintzen zutelako baizik.

Zure buruari zeuk agintzen diozunez, zer harreman duzu estetikarekin?

Niretzat oso inportantea da. Jantzi behar dudana nolako den, gustura nagoen horrekin, zer itxura ematen dudana... Horretan bai bizi naizela besteen mende. Esango nuke gutxien zaintzen duenarentzat ere, badela inportantea, bai zer janzen duen, nolako autoa edo bizikleta daukan, nolako lekuak gustatzen zaizkion, nola dekoratuko lukeen bere etxea. Azkenean, detaile horiek osatzen gaituzte. Harrigarria dena da Ikeak eta Zarak nola lortu duten denok uniformeak izatea. Denok uste dugu elkarrengandik oso desberdinak garela, baina denak berdin janzen gara, gauza berdinak erabiltzen ditugu, sofa berdinak dauzkagu... Desberdinak garen ilusioa mantendu nahi dugu, ordea, eta hori estetikarekin elikatzen dugu, estetika zentzu zabalean ulertuz. ■



Sutagar
20 URTE

**20. URTEBETETZE
OSPAKIZUN BIRA**

AZAROAK 14 BARAKALDO ROCKSTAR LIVE
AZAROAK 15 BERGARA JAM
AZAROAK 29 BERMEO KAFE ANTZOKIA
ABENDUAK 19 L'HOSPITALET SALAMANDRA
ABENDUAK 26 DURANGO PLATERUENA

kontratazioa: 619 11 69 74
sutagar.com

